

BIZKAIA SORTZAILEA 2024

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskabidea Internet bidez aurkeztuko da “Ekonomia Sustatzeko bulego birtuala” atalean (<http://www.bizkaia.eus/Sustapena-BulegoBirtuala>)

Ondoko dokumentazioa aurkeztu behar dira eskabidearekin batera:

- Proiektuari buruzko memoria.
- Hartzekodunaren fitxa, Bizkaiko Foru Aldundian banku-helbideratzeari buruzko datuak ez badaude edo bertan dauden datuak aldatu nahi badira.

Proiektuaren memoria eta hartzekodunaren fitxa Ekonomia Sustatzeko Sailaren webgunean dauden ereduaren arabera aurkeztu behar dira (www.bizkaia.eus / Enpresak eta Nazioartekotzea / Ekintzailtza / Berrikuntza eta sormena / Bizkaia Sortzailea).

- Proiektuaren sustatzaile-taldearen lanbide-historia edo enpresaren ibilbidea, hala badagokio.
- Enpresa sortzaile berrien kasuan, EJZko altaren lehenengo data 2022eko urtarrilaren 1a edo 1az gerokoa dutenak, entitate eskatzailearen eraketari buruzko eskritura, behar bezala erregistratuta, eta, hala badagokio, kapital-gehikuntzari buruzko eskriturak.
- Irabazi-asmorik gabeko sektore-erakundeen kasuan, entitate eskatzailearen estatutuak, behar bezala erregistratuta.
- Enpresen kasuan, 2023. urteko fakturazio-zerrenda, bezeroak, egindako lanaren deskripzioa eta fakturaturako zenbatekoa jasotzen dituenak. Fakturazio zerrenda Ekonomia Sustatzeko Sailaren webgunean dauden ereduaren arabera aurkeztu behar da (www.bizkaia.eus / Enpresak eta Nazioartekotzea / Ekintzailtza / Berrikuntza eta sormena / Bizkaia Sortzailea).

Irabazi-asmorik gabeko sektore-erakundeen kasuan, 2023ko ekitaldian egindako jarduerak, haien deskribapena eta kostua adierazita.

- Irabazi-asmorik gabeko sektore-elkarteen kasuan, elkartekide diren pertsona edota entitateen zerrenda, eta haietako bakoitzerako adierazi behar da EJZko zer epigrafetan dauden alta emanda eskabidea aurkezten den egunean.
- Enpresen kasuan, enpleguaren betekizuna egiazteatzeko:
 - Enpresak ordaindutako azken autonomoen ziurtagiria edo azken nomina, langile autonomoen kasuan bakarrik.
 - Inoren konturako langileen kasuan, betekizun hori automatikoki egiaztatuko du Ekonomia Sustatzeko Sailak.
- Proiekturako jarritako langileen barruko gastuak eskatu badira:
 - Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean dauden pertsonen kasuan, azken bi langileen zerrenda izenduna (LZI).
 - Langile autonomoen kasuan, azken 2 nominak eta azken autonomoen ordainagiria.



- Errentamendu gastuen kasuan, errentamendu-kontratua, behar bezala beteta.
- Merkaturatze gastuei eta marketin-planari dagozkien aurrekontuak.
- Negozioa garatu behar duen pertsonaren kontratazioen kasuan:
 - Lan-kontratua.
 - Langileen zerrenda izenduna (LZI) edo alta Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean, zerrendarik ezean.
 - Lan-bizitza.
 - Curriculum vitae
 - Enpresa berrian izango dituen eginkizunen deskribapen laburra.